

Aretxabaleta,
1994eko irailak 1

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

KARGA ETA DESKARGA
EZIK

Andramaixak, maixak,
maixak...



Goizeko 10.30ak, Atxabaltako txistulariek danbolina eskuan eta txistua ahoan zutela soinua jotzeari ekin zioten, beraiek izan baitziren jaiak hasi behar zutela iragartzeko arduradunak eta urtero moduan herriko txistulariek ez zuten kale egin. Kaleetan zehar soinu alaiak jo ondoren, herritarrok jakinaren gainean jarri ginen. Beste urte batzutan ez bezala aurtengo andramaixak goiz goizetik hasi ziren.

Bezperan, umeez herriko plaza izan zuten zita, bertan beraiek zuzendutako parkea jarrita zegoen. Besteak beste, gaztetxoek tren txutxuan ibiltzeko aukera izan zuten, gaztelu puzgarrietan ondo baino hobeto pasatu zuten eta honez gain, pin tailerak ere ez ziren falta izan. Kontuak kontu, gaztetxoak primeran ibili ziren eta aldamenean zuten gurasoek, jakina, adurra dariola.



Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Iñaxo Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale, Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.



Ikurriñari agurra 14an egin zitzaion. Horretarako, herriko Alkate eta zinegotzi guztiak Udaltxe aurrean bildu eta alderdikiak alde batera utzita, omenaldia egin zioten Euskaldunon ikurriñari. Ikurriñari agurra egin eta gero, festak benetan hasten zirela adierazten zuen txupinazoa bota zuten.

Ikurriñari agurra egiteko bildu ginen guztiok txalapartaren soinua entzuteko aukera izan genuen. Izan ere, Atxabaltako txalapartariak ekintza horretan parte hartu gura izan zuten eta tresna guztiak kalera atera ondoren, Julen Zuazuabeitia eta Imanol Al-tubek txalapartaren soinuaz, giro euskaldun eta berezia jarri zioten ikurriñaren omenaldiari.



Mobiliario
ARENAZA

*ALTZAIRUAK
DISEINUA
APAINKETA*


Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

**MITARTE
GARAI**

• *Jatetxea eta logelak* •

Areantza auzoa

☎ 79 17 51



Mus txapelketako irabazleak

Mus eta bolo txapelketa lehen egunean

Andramaixak Mus Txapelketa barik ezin!. Horregatik aurtent XVI. Mus Txapelketa jokatu zen bezperan, jende dexentek eman bazuen izena ere, irabazle ateratzeko aukera bikote batek bakarri duenez aurtengo Andramaixetako zortedunak Angel Orobengoa eta Fermin Alcalde izan ziren. Irabazi zuten saria

bestetik 26.000 pta, txapela eta garaikurra. Bigarren Letona eta Errarte bikotea geratu zen; hauek 20.000 pta eta garaikurra eskuratu zuten. Zorionak guztioi!

Eta gauean, barriz, Bolo Txapelketa izan genuen.

Bertan jende askok hartu zuen parte, ohiturari jarraituz. Hemen ere musean moduan, irabazle bat,

Muru atxabaltarra.

Eguna bukatzeko, herriko plazan, urteroko ohiturari jarraituz, Aldaba taldearekin dantzaldia egon zen. Dantzaldian inor, taldekoak bakarrik. Pena bat da herriko plaza horrela ikustea Andra Mari jaietan. Baina tamalez, urtero berdintsu gertatzen da Atxabaltan.

ANGELINES
Autozerbitzua



Mitarte, 16

☎ 79 61 42

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16
☎ 79 73 65

Novedades

MODAN
DAGOEN
GUZTIA



Iparragirre, 4
Tfnoa. 79 21 24



Meza Nagusia Andra Mari Egunean

Andra Mari egunean, hamabietan Meza nagusia eman zen. Ordurako Eliza jendez gainezka zegoen. Udal korporazioko kideek Atxabaltako banderarekin eta alkate soinuaren laguntzaz elizarako bidea hartu zuten Andra Mari eguneko meza nagusia entzuteko. Jokin Bengoak Atxabaltako bandera eraman zuen, bera delako korporazioako kide gazteena, Udal korporazio ia

osoa egon bazen ere, bi aurpegi faltan bota genituen; Iñaki Pierregues eta Koldo Azkoitia ez ziren bertan egon oporretan zeudelako. Meza Aita Mikelek eman zuen eta Atxabaltako abesbatzak zenbait abesti kantatu zuen mezaren zehar. Jendea oso gustora azaldu zen abesbatzak egindako lanarekin, eta egia esateko, abesbatzak primeran kantatu zuen.

Andra Mari eguneko meza eta

egun osoa ere bai, oso handia izaten da atxabaltarrantzat eta argi geratu zen hori. Gainera bai mezetan eta baita kalean ere, inguruko herrietako jende asko hurbildu zen. Meza bukatu ostean, Zumaiaiko bandak kontzertua eskeini zuen herriko plazan. Eta ondoren, bazkaltzeko ordua etorri eta herritarrak Andra Mari eguneko bazkari berezia jatera joan ziren.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

ZARAIA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK



Andra Mari egunean Zumaiako bandaren bisita jaso genuen. Eguerdiko ordu batean kontzertua eman zuten herriko plazan. Bost pieza jo zituzten, guztiak ederrak benetan. Arratsaldean oster, bandaren eskutik, dantzaldia izan genuen. Jendeak bandaren soinua entzutean ez zuen aukera galdu izan eta pasodoble, pasakaile eta abar dantzan egin zutenak asko ez baziren izan ere, gutxi bakar horiek ondo aprobetxatu zuten arratsaldea.

Eta nola ez?, Andra Mari Egunean dinosauroak izan genituen Herriko plazan, ez benetakoak jakina, baina txikitxoak ederto pasatzeko modukoak, bai horixe!, bestela galdetu jo eta sua saltoka, eta jolas baten ibili ziren neska-mutil kozkorrei. Horrelako unetan urte batzuk gutxiago izatea gustatuko litzaiguke, baina hori posible ez denez, beste batzuei begira konformatu behar dugu.



AITZIBER NIÑO

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34
79 31 87

JOSU URDAITEGIA

Mitarte, 1


Pilota partiduak

Andra Mari egunean hasi zen jaietako Pilota txapelketa. Aurrez aurre Urretabizkaia-Alonso bikotea Berraondo - Iriakez bikotearen kontra. Neurketa honetan irabazleak Urretabizkaia eta Alonso atera ziren. Gaueko bigarren partiduan Atxabaltako Errasti anaiek Dani eta Larrañagaren kontra neurtu zituzten indarrak. Honako honetan Atxabaltarrak jaun eta jabe izan genituen. Partidu interesgarriak izan ziren biak.



Iturrigorri frontoia jendez leporaino egon zen bai Andra Mari egunean eta baita finala jokatu zen egunean ere. Pilota zaleak ez dira Atxabaltan falta, eta hain giro ona ikustean pilotariek ere askoz ere gustorago jokatuko zutelakotan gaude. Pozgarria da oso, pilotarekiko atxabaltarren erantzun on hori ikustea.

EGUZKIGRAF



**Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943- 79 18 44 Faxa 943-79 29 41

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43



Marrazki lehiaketan, lan gogorra egin zuten umeek. Azkenean denek jaso zuten opari bana. Hemendikigoal, marrazkilari onen batek urtengo du, betek daki!



Umeekin jarraituz, egunero euki zuten parkea. Batek baino gehiagok, gurasoek lagunduta, Andramaixa osoa plazan pasatu zuten: batzutan gazteluetan, beste batzutan motorretan, eta argazkiak ikusten den moduan, beste batzutan zezen mekanikoan.

GUREA

TABERNA
JATETXEA

Durana Kalea
Ifnoa: 79 20 64



MAPFRE

Aseguruak

Errekabarren, 3
Ifnoa: 77 11 76

MATIKUA

Taberna

Azatza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA



Kanpoko bisitariak ere izan genituen jaietan. Ez dakigu asko saldu zuten, baina kalean zehar horrelako postu asko ikusi genituen jaiek irauten bitartean.



Presoak eta intsumisoak ere gogoan izan ziren Andramaixetan. Abuztuaren 17an Beitia Arrasateko intsumisoa preso sartu zuten. Hau dela eta, manifestazioa izan genuen kalean zehar. Jende ugari bildu zen aipatutako manifestazioan.

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10



INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S. A

Mitarte, 23
Tfno: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55



Etxafleru ugari bota zituzten Andramaixetan. Gainera, beldurra ere pasatu zuten. Batenbateri alkandora ere apurto zitzaion.

Andra Mari guztietan, norbaitek bota behar izaten ditu etxafleruak, eta aurten horren ardura bi zinegotzik izan dute: Felisek eta Clementek.

Norbaitek kebaren bat badu, badaki nora jo behar duen.

Etxafleruekin jarraituz, Andra Mari egunean, gauean, Pirotecnia Zaragozanak ikuskizun nahiko kaxkarra erakutsi zigun jaurtitako suzko erruerekin. Ez dakigu zer gertatu zitzaien, baina nahiko baju ikusi genituen, nahiz eta argazkian montaje ederra ikusi.



ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

Urlatik

1994ko irailak 1

• Gatzagako berriak •

10. zenb.



Gatzaga jaixetan

Pagedar taldearen lehenengo urtebetetzea

Bai, egunak joan, egunak etorri, urtebete pasatu da. Talde honen helburu nagusia, Gatzagan euskeraren erabilpena normalizatzea da eta hori jorratu nahian aktibitate desberdinak bultzatu dira taldetik; batetik eta gehien ikusten dena, esku artean duzun aldizkari honen

kaleraketa, honekin 10. alea betetzen dugularik, baina beste aktibitate garrantzitsuagoak bete dira ere, gehien bat, gazteei zuzen duak, beste batzuen artean; Euskerazko klaseak (8 pertsona joaten dira), akanpadak, jolasak, gabonak, udaleku irekiak, ferixa, karnabalak, eta

abarretan Pagedar taldeak zuzenean antolatuz edo lagunduz euskeraren alde egin nahi izan du.

Berriz ere herritar guztiei luzatzen diegu taldean parte hartzeko gonbidapena eta batera eskertzea nahi dugu jasotako arrera eta laguntza parkamena eskatuz txarto egin edo esandakoengatik.

Elart



Enpresa berri bat dugu herrian, ELART du izena eta elikagai artisauak eta naturalak komertzializatzen ditu. Eskolako bajuetan kokatu dira eta bertara urbiltzen denak aukera izango du elikagai interesgarrien artean hautatzeko. **SORTE ON**

KAMISETAK SALGAI

Aurreko urtean bezala eta jaixetan behar bezala jantzita joateko Pagedar Taldeak kamisetak jarriko ditu salgai. Kamiseta eder hauek tabernan egongo dira salgai.... merke, merke.

▼ Urlatik ▼

Argitaratzailea: Pagedar Elkarte Kultur etxea, Gatzaga. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. E. **Tirada:** 600 ale. Urlatik paper Birziklatuan egiten da.

Jai giroan murgiltzeko prest gaude Gatzagatarrok. Aurten ere Andra Mari Jaixekin gozatzeko, Jai Batzordekoek egitarau ezin hobeagoa prestatu dute. Jarraian duzue aipaturiko egitarauaren zehaztazunak; Txirindulari lasterketa, Meza Santua, Dantzaldia, Trikitilariak, Herri kirolak, Gaupasak, Txokolatadak, Bertsolariak eta abar luze bat. Bertakoentzako eta ingurutik direnentzako egun alaitsuak pasatzeko aukera paregabea.

ONDO PASAU ANDRAMAIXAK

Jai egitaraua

Irailak 4

Igandea

Goizeko 9retan: **Txi-rrindulari lasterketa.**

Irailak 7

Asteazkena

Arratsaldeko 7retan: **Dorletan, Nobenaren amaiera, gazta, ogia eta ardoa bukaeran.**

Irailak 8

Osteguna

Goizeko 11etan: **Raflen Eskil emanaldia eta etxafleroak.**

Goizeko 11,30etan: **Otxandixokoei ongi etorria.**

Eguerdiko 12etan: **Meza Santua.**

Eguerdiko 1etan: **Herri poteoa Zabale anaiak trikitilariekin batera.**

Eguerdiko 2etan: **Jubilatuen bazkaria.**

Arratsaldeko 6retan **Peio Añorga kontularia.**

Gaueko 11.etan: **Dantzaldia Maixa eta Itziar taldearekin.**

Irailak 9

Ostirala

Goizeko 12etan: **Meza Santua.**

Eguerdiko 12,30etan: **Herri poteoa Laja eta Landakanda trikitilariekin batera.**

Eguerdiko 1etan: **Herri kirolak.**

Arratsaldeko 4,30etan: **Mus eta Briska Txapelketa.**

Arratsaldeko 6retan: **Umeentzako jolasak.**

Arratsaldeko 7retan: **Oinatz dantza taldea.**

Gaueko 12etan: **Dantzaldia Joselu anaiak taldearekin.**

Irailak 10

Larunbata

Eguerdiko 12etan: **Herri Poteoa Legutioko trikitilariekin.**

Eguerdiko 2,30etan: **Herri bazkaria.**

Arratsaldeko 6retan: **Fandango eta Arin Arin txapelketa.**

Gaueko 11etan: **Bolo Txapelketa.**

Gaueko 11,30etan: **Gau pasa Niko Etxart eta Sigrifaldea.**

Goizeko 6retan: **Txokolatada.**

Irailak 11

Igandea

Eguerdiko 12etan: **Meza Santua, Gorosarri koralak parte hartzen duelarik.**

Eguerdiko 12,30etan: **Herri Poteoa Incansables Txarangarekin.**

Eguerdiko 1etan: **Bertsolariak.**

Goizetik hasita: **Plater tiraketa.**

Arratsaldeko 5etan: **Pilota partiduak.**

Gaueko 10etan: **Dantzaldia Eguzki taldearekin.**

Udaleku irekiak

Aurreko zenbakian aipatzen genuen Aretxabaletan antolatutako udaleku irekietan parte hartzeko aukera zutela gure herriko gaztetxoek eta horrela gertatu zen. Uztailan zehar eta hamar egunez, egunero transporte lanak Iñaki Elkorobarrutiak eta

Pili Albarezek egiten zutelarik, herriko 11 gaztetxo jolasekin, irteerekin, eta barrekin ezin hobeto pasatzeko aukera aprobetxatu zuten. Aipatzekoa Dorletak eta Gurutzek taldeko kideak egindako lana.

Oharrak

Jai Batzordekoek, jaixetan jarri behar den Tabernan zerbitzeko pertsonak eskatzen dituzte, orainarte izena emandakoen turnoak herriko taberna iraunkorren iragarki paneletan azalduko dira.

Igandean, Irailak 11, "Baserritar" jantzita irtetzea derrigorrezkoa da herri poteoan parte hartzeko.

Mila esker.



GURE AMETSA JATETXEA

Ezkontza, euskal sukaldea,
entrepesetako afariak

Tfnoa: 71 49 52

Leintz Gatzaga

Zatoz ezagutzera
ZUHAITZ
jatetxea!

BIZKARI
ETA AFARI
ONENAK!!!

Tfnoa.: 71 46 08

GATZAGAN

GATZA GAIN

JATETXEA

Bertako janari
tipikoetan
espezializatua

Tfnoa: 71 50 77

ARRATE

Taberna

*Menestra, bakailu eta txuletoian bereiztuak,
Etxeko postre gozoak.*

☎ 71 43 71


LEINTZ GATZAGA



Sport SASIAIN

Inportazio eta nazio mailako
bizikleta salmenta:Mauntain bike,
bidekoak, umeenak paseokoak,
estatikoak...

Zaraia, 4 - Tel. 79 77 63 ARETXABAleta



Argazkietan ikusten den moduan, jende ugari ibili zen kalean 2. eta 3. egunean. Batzuk Herri kirolak ikusten tablau gainean eta beste batzuk, zezenak ikusten hesiaren atzean. Denok topatu zuten bere lekutxo gaiza desberdinak ikusteko.


LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



Gauetan giroa danondako egon zen: gazteak, ez hain gazteak, ezkonduak, ezkongabeak...

Bakoitzak bere modura, baina ez zuten gauetako aukera alperrik galdu gura.

Argazki biak konparatuz badirudi, gazteak nekatuagoak zeudela hain gazte ez zirenak baino. Horrela izango ete zen?



MZ MASAILARIAK


MASAIK ZARAIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13 - 1-A
Tfnoa: 79 71 55

"HERRASTI"
AKEITA ETXEA



Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83



IBARRA
ESTANKOIA

Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77



Putz eta putz. Ito barik eh? Txapela buruan, betaurrekoak eta sudurra gainean zituela, nahikoa lan izan zuen globoa putzen.

Azkenean ez dakigu zer egin zuen berarekin, baina horrenbeste indar egin ondoren, zeozertarako balioko ziola uste dugu.

Beste batzuk barriz, globo barik baina sasofioia eskuan zutela eta txapela buruan ederto pasa zuten hirugarren eguna. Bestela galdetu argazkiko fenomeno biei.

Helduko ziren etxera txapel eta sasofioiaz? Hori eurek bakarrik argi dezakete.



**T
X
i
L
A
R
R
A**

**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALETA

**HAIZEA
AKEITEGIA**

Mifarte Kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

Kirola nagusi bigarren egunean: Txirrindulari lasterketa, herri kirolak eta pilotako finalak



Goizeko 9.30etan hasi zen Leintz Bailarako 56. itzulia. 14 talde desberdinetako 150 txirrindularik ordurako izena emana zuten eta gertu zeuden 126 kilometro egiteko. Aurtengo itzuliak ibilbide barria estreinatu zuen, beraz, beste urte batzutan ez bezala txirrindulariek Epeleko bidetik bi bider pasatzeko aukera izan zuten, eta gainera aurrean herritik gehiagotan pasatu ziren txirrindulariak.

Lasterketari dagokionez, hasieratik oso bizia eta lehiatsua izan zela esateko moduan gaude. Txir-

rindulariek behin eta berriz ihesaldiak egiteko saiakerak egin zituzten arren, saiakera guztiak bertan behera geratu ziren tropelak ez baitzuen amore eman. Azkenean sprintean erabaki zen lasterketa eta azkarrena Jose Luis Herrera, Cafes la Fortalezakoa izan zen, 2. J.L Barradas eta 3. tokiak Zigor Iriondok lortu zuen. Taldekako saria Cafes la Fortalezak eskuratu zuen; mendikoa barriz, Aitor Osak eta bigarren mailako lehen afizionatua Unai Yus izan zen.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Gabriel Saralegik 5 metrotara igo eta aizkora eskuan zuela ikuskizun polita eskeini zigun. Bertan bildutako jende mordoak asko disfrutatu zuen Gabriel burututako lan txukunarekin.



Saralegi ahizpak aizkora ikusteko aukera ere izan genuen, hauek euren lana enbor gainean bete zuten eta ez 5 metrotara anaiak bezala. Batzuk goian eta besteak behean, aho zabalik utzi gintuzten ikusle moduan gauden guztiok.



Bestalde, harrijasotzaile lana beteten beste bi maisu izan genituen, batetik Goenatxo eta bestetik Migeltxo Saralegi. Herri kirolen munduko haundien artean haundienak etorri ziren Atxabaltara eta egingadako lana horrelakoa izan zen, paregabea.

Pilota partiduak jendez gainezka



Pilotako finalak bigarren egunean jokatu ziren. Aurrez - aurre Atxabaltako Errasti anaiak eta Berraondo eta Idiakez bikotea. Harmaietan jende asko eta pilota partidua bukatu zenean txapelketako txapeldun atxabaltarrak izan genituen, hau da Errasti anai gazteak. Gazte hauei pilota munduan etorkizuna somatzen zaie, gainera esan behar da Andra Marietako txapelketan Errasti anaiak irabazten duten lehen aldia dela.



Gaueko 11etan Intxausti eta Munduate trikitilarien emanaldia izan genuen herriko plazan. Soinu alaiak eta dantzan egiteko modukoak jo bazuten ere, herritarren erantzuna ez zen ona izan eta plaza erdi hutsik egon zen dantzaldiak iraun zuen bitartean. Badirudi atxabaltarrok tabernetan bakarrik dakigula dantzan egiten. Ea noiz ausartzen garen Plazara hurbildu eta dantzarako gure trebetasunak erakusten, ordua da eta.



Zezenak dira, beltz - beltzak dira, harrapatzen bazaitu....

Bigarren eta hirugarrenean aspaldiko urtetan bezalaxe, zezenak izan ziren protagonista. Bigarren egunean arratsaldeko 6etan egon zen sokamuturra eta hirugarrenean bai goizez eta baita arratsaldez ere. Arnoko zezenak izan genituen Durana kalea gora eta behera, eta egia esateko batek baino gehiagok susto ederra hartu zuen. Esaterako, Felix Arrese larri eta estu ibili zen zezenaren aurrean,

azkenean sustoa besterik ez bazen izan ere, Felix Iñurrategik ere zartada galanta hartu zuen, ez zezenak harrapatuta, baina bai zezenaren erruz, bekoian zenbait puntu eman zizkioten zezena atzean zuela ikusi, buelta eman eta farolaren kontra jo zelako. Eta Felix Galfarsorok zezenaren adarrak gertu - gertu izateak sortzen duen sensazioa bizitzeko aukera izan zuen. Hauek adibide batzuk besterik ez dira.



Azken egunean "Ardoa barrura" txaranga arduratu zen giroa berotzea. Goizeko 11etan jo zituzten lehen soinuak kaleetatik zehar, gero sokamurrurra zegoelako atsedean bat hartu zuten eta ordu bata aldera txarangarekin kalejira egon zen. Txarangaren musikak jendea animatu egin zuen eta zenbait dantza egin ostean batzuk herri bazkarira joan ziren eta beste batzuek euren etxeetan jan zuten jaietako azken bazkaria. Arratsaldean, barriro ere, "Ardoa barrura" txarangaren musikak alaitu zituen Atxalbaltako kaleak.

- 12.30etan "Kukubiltxo" antzerki taldea kalera jeitsi eta barre algarak egiteko aukera izan genuen. Gaztetxoek piska bat harrituta begiratzen zuten "Kukubiltxok" egiten zuena eta hain gaztetxo ez zirenek umeez bezala pasatu zuten. "Kukulbitxo" taldekoek denetik egin zuten: erruera bateko bizikletan ibili, balkoiatarara igo, dantzan egin... eta esan behar da atxabaltar bat ere tartean zegoela, Iurgi Etxeberria hain zuzen ere.



OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69

ARETXABAleta

MartiW

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16

☎ 79 01 72

**Aretxagazetako
bazkide izan
gura baduzu dei-
tu:**

**79 01 05
Telefonora**

Herri bazkarian giro ona baina jende gutxi



Hirugarren egunean, ohitura den bezala, Herri bazkaria egon zen Iturrigorri frontoian. Bertan giroa ez zen falta izan, baina jendeak ez zuen erantzun espero zen bezala. Hasiera batean 100 bat pertsona biltzea espero bazen ere, 50 bat bakarrik egon ziren. Bildutakoek patatak errioxar era-
ra, oilaskoizter errea, letxuga entsaladarekin eta brazo gitanoa dastatu zuten. Bazkaria 2.30etan hasi bazen ere, aurretik beste baztuek lan egin beharra izan zuten dena puntuan jartzeko.



Txapelak, turutak, ur-pistolak, bazkari goxoa eta primerako edaria, zer gehiago ondo pasatzeko? Hirugarren eguna, hirugarren eguna da. Bazkarian egon zen giro on eta alaiak kalean jarraitu zuen arratsalde aldean. Gauean, ohitura ez galtzeko, bokadiloa jan, pilak kargatu eta juergara zuzen zuzunean.

**atxabaltarren aldizkaria
kalean ikusi ahal izateko
ezinbesteko kolaborazioa
eskainiko duzu.
Euskeraren onerako egin
zaitez bazkide.**

**Aretxagazeta Elkartea, Kultur-Elkartea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila**